Munduko edozeiñ tokitan peste edo isurritea azaltzen danean, sentitzen dute gose, egarri eta premi aundia beren biotzeko deseo irazekia asetzoko; korrika joanaz? eri ta kutsatuai laguntzera, eta emakume itsaltsu eta atsegiñgarri oek, aingeruzko parra gozoa ezpañetan dutela sartzen dira atsekabetuen artean aiñ premia aundia daukaten poz-konsueloak emateko.

¿Eta nondik datorkie onenbeste birtute, onenbesteko sakrifizioak? Karidadez bete beteak egotetik. Bai, karidadeak bakarrik eragiten diezte mirari oek, testigu lengo denbora joan luzeak, eta erlijio katolikoaren erakaste eta sentimentuak. Glori-alabantzak sakrifizio aiñ aundiraño alchatzen dan emakume-martizti oni.

¿Eta izango da iñor berai gorrotoa dionik? ¡A, ez orrelakorik! Zergatik erokeria ichumen setatsuzko oni batzuek iñoiz edo berriz munduan ikusten badira ere, etortzen da eguna, noiz garbiro aitortzen duten Europa guziaren aurrean. Testigu Marsella-ko uria, orain sofritzen dagoen isurritean Mundu guziak bedeinka ditzala emakume santu oek, eta markatu kondairetan suzko siñaleakiñ oen izen bedeinkatuak beren fundatzalle San Bizente Paul-enarekiñ batean.

MANUEL A. DE ANTÍA.

# CASTELAR EN GUERNICA

Nada más lejos de la mision de esta Revista que inmiscuirse en asuntos de índole política; pero cuando vemos que, al pié de nuestro Arbol de Guernica, el Sr. Castelar aconseja á los bascongados que al exclamar ¡Vivan los fueros! digan tambien ¡Viva la libertad!, es de nuestro deber recordar que la única bandera legítima de la Euskal-erria, sin quitar ni añadir nada, es la en que se leen estas palabras:

## JAUNGOIKOA ETA FUEROAK.